

## **Eusko Jaurlaritzak haur-literaturako gida bat editatu du "herri ijitoa hobeto ezagutzeko"**

GASTEIZ. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak haur-literaturako gida bat argitaratu du txikienak "herri ijitoaren ezaugarri eta errealitatera hurbiltzeko eta hobeto ezagutzeko".

Kultura Sailak prentsa ohar batean adierazi duenez, Ondare Kulturalaren Zuzendaritzak "Liburutegiak Topaleku" programaren baitan egiten dituen ekintzetako bat da gidaren argitalpena. Programaren helburua "tolerantzia eta kultura-integrazioa bultzatzea da".

" 'Liburutegiak Topaleku' goiburupean, liburutegi publikoak gaur egun Euskadin bizi diren kultura ezberdinen arteko topaguneak eta integratiorako espazioak izatea nahi da, berdintasuna, tolerantzia eta aniztasuna bezalako balioetatik abiatuta", adierazi du.

Halaber, Kultura Saitetik zehaztu dute kanpaina berria martxan jartzeko Eibarreko eta Irungo liburutegiak kolaboratu dutela. Proiektua liburutegi publiko guztietan egingo da, eta hezkuntzaren eremuan landuko da bereziki.